



**GOBERNANTZA, ADMINISITRAZIO
DIGITALA ETA
AUTOGOBERNUAREN SAILA**
Erakunde Harremanetarako
Sailburuordetza
*Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO**
Viceconsejería de Relaciones
Institucionales
*Dirección de Gobierno Abierto y Buen
Gobierno*

AGINDUA, GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITZAI GARDENA-GARDENTASUNAREN EUSKAL AGENTZIAREN ESTATUTUAK ONARTZEKO ETA AGENTZIA MARTXAN JARTZEKO DEKRETUAREN AURREPROIEKTUARI

Duela gutxi Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legeak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentzia sortu du, Agentzia Independente gisa, nortasun juridikoa duen erakunde publiko gisa, eta estatutu organikoak onartzera bidali du benetan martxan jartzea.

Horretarako, dagozkion arau-aginduak ezarri dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, dekretu bidez onar ditzan agintaritza independente horrek jarduteko izango dituen estatutuak, eta, era berean, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza benetan noiz jarriko den martxan ezar dezan.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gardentasunaren eta euskal administrazio publikoen antolaketaren eta prozeduraren politikaren arloan dituen eskumenei dagozkien ahalmenak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernantza Publikoa aplikatzeko eredia diseinatzea ere politika publikoak definitzean eta gauzatzean (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1 artikuluko f eta m apartatuak).

Arau-testuinguru hori kontuan hartuta, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak lege-xedapen bat egingo du, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza izeneko agintaritza independentearen estatutuak ezartzeko eta agintaritza independentea abian jartzeko, eta, horrela, esparru juridiko egokia emango dio, bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideekin eta baliabide materialekin funtzionatzen has dadin.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea bideratzen da, eraginpean egon daitezkeen pertsonen, entitateen eta antolakundeen iritzia jasotzeko.

Kontsultak honako alderdi hauei buruzkoa izan behar du:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Hori guztia dela eta, fase hori oporraldi luzeenarekin batera hasten dela kontuan hartuta, 45 egun naturaleko epea ezartzen da pertsona, entitate eta erakunde interesdunek ekarpenak egin ditzaten. Izapide hori aurreproiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan araututako hasiera-fasean.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren estatutuak onartzeko eta hura abian jartzeko Dekretuaren aurreproiektua egiteko ekimenari.

Bigarrena. Hartzaile izan daitezkeenek eta herritarrek, oro har, agindu honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazi ahal izango dituzte berrogeita bost egun balioduneko epean, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Sin.: MARIA UBARRETXENA CID
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA



ERANSKINA

AURRETIAZKO KONTSULTA

GARDENA-GARDENTASUNAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESTATUTUAK ONARTZEKO ETA AGINTARITZA MARTXAN JARTZEKO DEKRETU-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**1.- EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:**

GARDENA Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren (edo GARDENA, aurrerantzean) estatutuak onartzeak eta martxan jartzeak Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legeak ezarritako aginduari erantzuten dio, zeinak erakunde publiko hori administrazio-agintaritza independente gisa sortzen baitu.

Proiektatutako dekretua onartzea ezinbesteko urratsa da GARDENAREN jarduerak hasteko, eta, horretarako, erakunde horrek funtzionatuko dituen estatutuak nahitaez jasotzen dituen ekimena bideratzen da.

2.- ARAUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

2026ko maiatzaren 25ean, Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legea argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Lege horren xedea da, besteak beste, jarduera publikoaren gardentasuna eta publizitatea arautzea eta bermatzea, bai eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea ere. Horretarako, euskal agintaritza independente bat sortzea sartu da, independentzia osoz eta kanpoko eraginik gabe Euskadiko Gardentasunari buruzko 3/2026 Legearen helburuak betetzen direla berma dezan.

3/2026 Legearen azken xedapenetako lehenengoak, arau beraren azken xedapenetako hirugarrenarekin lotuta, GARDENAREN jarduerak hasteko aukera emango duten estatutuak onartu behar direla zehazten du, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio dekretu bidez onar ditzala.

3.- ARAUAREN HELBURUAK

- GARDENA Gardentasunaren Euskal Agintaritza Independentearen estatutuak onartzea, eta 3/2026 Legean agintaritza independentearen barne-antolamenduari, organo bakoitzak betetzen dituen funtzioei, egintzen eta ebazpenen balio juridikoari eta administrazio-ondorioei buruz aurreikusitako alderdiak zehaztea.
- Gardentasunari buruzko legeria aplikatuz eta GARDENAREN funtzioekin lotuta, erregelamendu bidez garatzea eskatzen duten edukiak zehaztea.
- GARDENAREN gainerako antolaketa- eta funtzionamendu-arau oinarritzakoak definitzea, bere eginkizunak betetzeko.



4.- EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Dekretu-proiektuak araudiaren ikuspegitik estali nahi ditu GARDENari legez esleitutako funtzioen ezarpenari eta garapenari lotutako antolamendua, funtzionamendu-arauak eta administrazio-bermeak. Dekretua onartzeak ezartzen duen 3/2026 Legea oinarri eta esparru neurezina denez, hura izapidetu eta onartu beharra dago.

Beraz, arau-izaerako neurri espezifikoak ezinbestekoa da, eta ezin da bestelako irtenbiderik aurreikusi, erregelamendu-mailako araua eduki behar baita GARDENA Agintaritza Independentea benetan martxan jarri dela egiaztatzeko.

Horrek oinarritzen du dekretu-mailako erregelamendu-izaerako antolamendu-arau bat idaztea, argitasuna eta segurtasun juridikoa emango dituen, eta, beraz, ezin da bestelako irtenbide erregulatzaile edo ez-erregulatzailek aurreikusi.